

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak ahalik eta ondoen funtziona dezan eta sistema kardiobaskularraren parametroak neurtzen dituen banda baten proiektua aurrera eraman ahal izateko, funtsezkoa da hainbat baliabide mota izatea. Baliabide horiei esker, produktua diseinatu, fabrikatu eta hobetu ahal izango dugu, eta, gainera, larrialdi-zerbitzuak azkar eta segurtasunez jardungo duela bermatuko dugu.



Hiru baliabide behar ditugu eta hauek dira:

- Baliabide fisikoak: Hor sartzen dira banda fabrikatzeko behar diren material guztiak, hala nola bihotz-maiztasuna, presio arteriala eta sistema kardiobaskularraren beste datu erabakigarri batzuk neurtzen dituzten sentsoareak. Horrez gain, bateriak, mikrotxipak eta GPS modulu bat ere behar ditugu, bandak pazientearen kokapena bidai dezan, anomaliaren bat detektatuz gero. Materialez gain, banda diseinatzeko, mihiztatzeko eta probatzeko lan-espazio bat behar dugu, bai eta laborategia ere, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko tresnak dituen. Ordenagailuak, zerbitzariak eta sistemak ere beharrezkoak dira erabiltzaileen informazioa biltegitatzeko eta babesteko.



- Giza baliabideak edo baliabide intelektualak: proiektuan parte hartzen duten pertsona guztiak eta ematen duten ezagutza. Adibidez, bandaren alderdi fisikoa eta datuak aztertzen dituen softwarea diseinatuko duten ingeniariak behar ditugu. Ingeniari horiek sentsoare biomedikoek nola funtzionatzen duten eta sortzen duten informazioa nola prozesatu ondo ulertu behar dute. Osasun-arloko profesionalak ere behar ditugu, hala nola medikuak edo kardiologiako espezialistak, bihotzeko datuak interpretatzen eta

anomalia bat dagoela noiz ulertu behar den zehazten lagunduko digutenak. Oso baliotsua da antzeko enpresetan esperientzia duten langileak, hainbat hizkuntzatan hitz egiten duten pertsonak edo aurrez larrialdietako teknologiekin lan egin duten profesionalak izatea. Gainera, enpresak patente bat edo alerta- edo banda-sistemaren berezko diseinu bat badu, hori ere baliabide intelektualen zatitzat hartzen da.



- Finantza baliabideei buruz hitz egin dezagun, hau da, proiektua martxan jartzeko eta martxan mantentzeko behar dugun diruari eta finantzaketari buruz. Baliabide horiek gure kasuan, sistema kardiobaskularra kontrolatzeko banda adimendunaren proiektua egiteko, dirua batez ere enpresaren diru propioetik eta osasunarekin lotutako dirulaguntza publikoetatik etorriko litzateke. Hasieran, diru hori nahikoa izango litzateke proiektua martxan jartzeko, lehen banda sortzeko eta oinarrizko probak egiteko. Horiek gabe, ezin izango genituzke bandak fabrikatu, langileei ordaindu, teknologia garatu eta produktuak behar bezala eta modu seguruan funtzionatzen duela ziurtatzeko beharrezko probak egin. Gainera, finantzaketa izateak aukera ematen digu gailuaren marketinean, banaketan eta mantentze-lanetan inbertitzeko, bai eta bandaren softwarea eta hardwarea etengabe hobetzeko ere.

Balio proposamena da bihotza zaintzen duen banda bat egitea, erabiltzailearen bihotz-taupadak eta bestelako datu garrantzitsuak etengabe neurtzen dituena. Banda arazo bat detektatzen badu, alerta bat bidaltzen du, erabiltzaileak eta medikuak azkar jakin dezaten, pertsonen osasuna babesteko eta bihotzeko arazoak lehenago antzemateko.